

kortasuna (emankortasuna eta ernalkortasuna), bai emakumearena eta bai animaliena eta landareena, *bedeinkapentzat ulertu izan da erlijiozko kulturetan, *biziaren sorrerarekin duen loturagatik. *Ugalkortasuna lortzeko eta areagotzeko ariketak eta erritoak oso hedatuak daude erlijio gehienetan, eta sinbolo sexualak ugari aurki daitezke.

Guzti horrek ez du, berez, erotismoarekin zerikusirik; baina sarritan ez da erraza, sinbolo eta ariketa guzti horien esanahi erlijiozkoa eta erotikoa bereizten.

Ik. Prostituzio sakratua; Ugalkortasun-erritoak; Sexu-erritoak.

Ugalkortasun-erritoak

Sin.: Emankortasun-erritoak

Emakumeen, animalien edota lurraren ernalkortasuna eta emankortasuna suspertzeko edo handitzeko asmoz egiten dituzten edonolako ihardukizun erlijiozkoak edo magikoak.

Ik. Ugalkortasuna; Ama Lurra; Prostituzio sakratua; Faloa; Lingam; Ura.

Uholde unibertsala

Genesisia liburuaren arabera, antzinatean gertatu omen zen egundoko euri-jasa, berrogei egun eta gautan iraun zuena, eta gizon-emakume eta animalia guztiak garbitu zituen, Noeren familia eta animalia mota bakoitzeko bikote bana ezik, horiek untzi edo kutxa handi batean onik atera bait zituen itotzetik.

Ekialde Hurbileko eta Indiako beste Herrietan ere aurki daitezke antzeko kondairak.

Bibliak gizadiaren *bekatuen zigortzat ulertzen du uholdea.

Ik. Ekaitza.

Ujanko

Euskal mitologiako *jeinua, urtebetearen sinboloa. Urteak adina begi omen ditu; igarotzen den egun bakoitzeko begietako bat galtzen omen du; baina Urtezaharrean dena berreskuratzen.

Ulema (ʿulmā)

Arabieraz "eskolatuak" esan nahi du. *Islamismoko teologoei eta erlijiozko *lege eta erakundetan jakitun direnei ematen diete deitura hori. Berez ulemak dira *mufti-ak (zuzenbide-irakasleak) eta *kadi-ak (zuzenbide musulmanaren barruko epaileak); baina gaur egun teologoen hierarki maila berezi batekoiei ematen diete ulema deitura; tradizioari oso atxekiak direnei, hain zuzen ere.

Ultramontanismoa

Hitzez hitz "mendiez hara indikoen" *irakasbidea esan nahi du. Eliza Katolikoan aita santuaren eta Erromako *kuriaren eskumena handitzearen eta Eliz administrazio zentralaren aldeko joera adierazten du. Alderantziz, Eliza nazionalak eta estatuek Elizako arazoetan esku hartzearen kontrako joera da: *galikanismoaren, *josefinismoaren eta antzekoen kontrako, beraz.

Frantzian batez ere borroka handia gertatu zen ultramontanoen eta kontrakoek edo zismontanoen artean. Ultramontanismoak, bestalde, antiliberalismo politiko eta teologikoaren testuinguru zabalagoa hartu zuen.

XIX. mendean garaile atera zen ultramontanismoa, batez ere Vatikanoko I. Kontzilioaren bidez.

Ik. Papalismoa; Eliza Katolikoak; Estatalismoa; Estatu-Eliza.

Umma

Elkartea esan nahi du. Islam-herriaren izen propioa da, nahiz eta beste erlijiozko talde batzuri (*judaismoari, *kristautasunari) izen bera egozterik izan, horiek *islamismoarekin duten herbiltasunagatik.

Lehen umma Mahomet-ek (Mahoma-k) Medinan sorturikoa da, tribalismoa gaingidituz. Baina islamismoa zabaltzean, fededun guztiek osotzen dute umma handia: Herri ezberdinek elkarte bakarra egiten dute, erlijioaren gain eraikia.

Umma musulmanaren oinarrian erlijiozko *elkartasuna dago, fededunena alegia. Hala ere, musulmanen elkarte erlijiozkoa aski kidedurik doa elkarte politikoearekin: esan nahi da, umma-k, funtsean erlijiozko edukina izan arren, baduela adiera politikorik ere, islamismoak erlijiozko-politikazkoen arteko lotura baieztatzen duen neurrian.

Mahomet bizi zen artean bera izan zen umma-ren buru eta gidaria. Hura hiltzean, berriz, elkarteak hautatu zuen Medina-n haren ordezkotzat Abu Bakr, beraren adiskide mina: eta *kalifa izena hartu zuen. Dinastia batetik bestera igaro zen kalifatza, eta horren egoitza ere bai: Medina, Kufa, Damasko, Bagdad. Alditan kalifa bat baino gehiago ere izan ziren.

1924etik aurrera musulman-umma-k ez du kalifarik, Turkiako Nazio-Batzarreak sultana bota zuenetik, berak bait zuen aspalditik bere eskuetan kalifatza ere.

Kristau-herriarekin kidetasun handia du Umma musulmanak, batak eta besteak kultura ezberdineko Herriak fede berberara ekarriz

Uniatak

erlijiozko *elkartea eraiki eta adierazi nahi dutenez. Baina islamismoko umma-k federa- zio politikoaren adiera ere badu, erlijiozko elkartearenarekin batera. Horretan oinarritzen da *panislamismoaren mugimendua ere.

Ik. Eliza; Kristandadea; Kristandade-erregi-
mena.

Paulo Agirrebaltzategi

Uniatak

Eliza Katolikotik aldendurik egon ondo- ren, horrekin batu ziren ekialdetar kris- tau-elkarteei deritze horrela. 1439an ospa- tutako kontzilioaren ondoren gertatu dira gehienbat batze horiek. Bakoitzak bere hiz- kuntzari, *erritoari eta lege kanonikoari eutsi die.

Uniatak dira: 1) Errito antiokiarrak: marondarrak, antiokiari patriarkaren menpeko syriarrak eta malankarrak; 2) Errito arme- niarrak: Ziliziar patriarkaren menpeko armeniarrek; 3) Errito kaldearrekoak: Kal- dearrak eta malabarrak; 4) Errito alexan- driarrekoak: Koptoak eta etiopiarrek; 5) Errito bizantziarrekoak: Poloniako errute- niarrak, errumaniarrak, hungariarrak, jugos- laviarrak, melkitak eta ukrainiarrak.

Ik. Errito antiokiarra; Errito armeniarra;
Errito alexandriarra; Eliza ortodoxoak;
Ekialdeko zisma.

Unitaristak

Orokorki, Elizaren historian zehar Jain- koaren Hirutasuna edozein erataria ukatu du- ten heretikoak adierazteko erabiltzen da deitura hori: antzinako ariotarrak, sabelio- tarrak, monarkianoak, etab. unitaristak zi- ren. Ik. Arianismoa; Sabelianismoa; Monar- kianismoa.

Izen hori ematen diete bereziki Aro Modernoan Hirutasunaren ukapenaren gainean sorturiko elkarteei, gaur batez ere AEBetan Amerikar Asoziazio Unitarista eta Ingalate- rran Britainiako eta Atzerriko Asoziazio Unitarista osotzen dituztenak.

XVI. mendean sortu ziren horrelako el- karteak Polonian, Alemanian, Holandan, eraso handien artean. XVII. mendean Ingalaterran zabaldu zen batez ere, *non unitarismoak* *deismora jo bait zuen. Unitaristek sozini- tarrak ere baderitze, mugimenduaren hasieran Fausto Sozzini Genova-koak ukan zuen gar- rantzi eta eraginagatik, bere idazkien bi- dez eta mugimenduaren buru izanez.

Sineste aldetik bilakaera aski handia eduki du unitarismoak: antidogmatikoa da eta ez du *fede-aitormenik eskatzen; unitaristen

idea eragile nagusiak dira: *Jesukristok irakatsitako Jainkoaganako eta gizon-emaku- meenganako *maitasuna; Jainkoa *aita dela eta gizon-emakume guztiak, *senideak; Ongia- ren eta Jainkoaren Erreinuaren garaipena; betiko bizitza.

Ik. Hirutasun txit santua; Betiko bizitza;
Jainkoaren erreinua.

Untzia

Txaluparen forma du sarritan untzia- ren sinboloak. Ibilgailua adierazten du batzu- tan: hildakoen arimak mundu honetatik beste- ra eramateko; bestetan bizitzako arriskue- tatik ateratzeko tresna da: S. Pedroren un- tzia, etab.

Upanisad-ak

Hitz sanskritoa da, eta irakatsiak jaso- tzeko modua adierazten du: hau da, *maisua- ren aurrean begirunez eserita. Izatez, elka- rriketa gisa eraturik daude partez Upani- sad-ak, Platon-en Elkarriketak liburuaren antzera.

*Vedanta ere esaten da, *Veda-ren azken partea denez; baina, alderantziz, Veda Upa- nisad-aurrekoa ere esaten dute, hori filoso- fiaren hasieratzat hartzen dutenean.

Neurri handi batez, filosofi tratatuak dira Upanisad-ak, espekulazio gorenekoek be- teak; berorietan finkatu dituzte indiar filo- sofia eskoletako kontzeptu nagusiak; eskola ortodoxoek bereziki errebelatutzat daukate liburu horiek. Ik. Liburu santuak.

Ugari dira: ehundik gora zenbatu ohi dituzte gehienetan. Nagusienak eta klasikoak K.a. 800-400 bitartean gorputzu ziren. Ho- riek osotzen dute Veda-ren azken parteak.

Indiako filosofi eskolen iturri nagusi- tzat jo behar dira Upanisad-ak.

Ik. Hinduismoa; Darxana.

Ura

Kultura eta erlijio denetan sinbolotasun aberatsa du urak. Hiru adiera sinboliko nagusi azalduko ditugu.

1. Biziaren sinbolo da, alde batetik, ura; *biziaren sorburuan ura dago, *kosmogonia gehienetan. Horregatik uretara sartzea eta handik irtetzea biziberritzearen sinbo- loa da. Zentzu horixe eman diote teologoek *bataioari. Ik. Uretaratzeako bataioa.

Bestalde, ernalkortasunaren sinboloa da ura, batez ere zerutik erortzen den euria. Ik. Ugalkortasuna.

2. Bigarren adiera, *garbikuntzarena da. *Sua bezala, ura erabiltzen dute erlijio